

Ordiziako Udala

2025GOIO0016

HEZIKETA PROIEKTUETARAKO DIRULAGUNTZA OINARRIAK ETA DEIALDIA 2025 URTEA

BASES REGULADORAS Y CONVOCATORIA AÑO 2025 PARA AYUDAS DE PROGRAMAS DE EDUCACIÓN

ZIOAK AZALTZEA

EXPOSICION DE MOTIVOS

Ordizia Herri Hezitzailea da (Hiri Hezitzaileen sarean) eta heziketa helburu hori lortzeko, honako misio, bisio eta baloreak adostu zituen proiektuan parte hartzen duten herriko hainbat eragilerekin:

Ordizia es un Pueblo Educador (dentro de la red de Ciudades Educativas) y mediante un proceso participativo que se llevó a cabo con agentes locales, se acordaron la misión, visión y los valores que nos han de guiar para conseguir ese objetivo educativo.

MISIOA

MISION

Heziketan eta giza eskubideen alde konprometituta gauden giza taldea gara non ahalduntze prozesu eraldatzailea oinarri izanda, herri hobeagoa lortu nahi dugun.

Somos un grupo de personas comprometidas con la educación y los derechos humanos, que desde la base de un proceso transformador de empoderamiento busca mejorar nuestro pueblo.

BISIOA

VISION

Herri inklusibo eta irisgarri bat izango gara, herritar guztiak aintzat hartzen dituen eta herria aniztasunetik bizi duena. Guetifikaziorik gabeko herria eta aniztasuna tratatzeko erremintak dituen herria izango gara.

Queremos ser un pueblo inclusivo y accesible, que tenga en cuenta a toda la ciudadanía y que viva el pueblo desde la diversidad. Queremos ser un pueblo sin guetificación y con herramientas para el tratamiento de la diversidad.

Jasangarritasunean eredu izatea bilatuko dugu eta zaintza eta bizitza erdigunean jarrita, indarkeriarik gabeko, elkar zaintzen duen komunitatea izango gara.

Buscaremos ser ejemplo en sostenibilidad, poniendo en el centro los cuidados y la vida, queremos ser una comunidad libre de violencia, que se cuida mutuamente.

BALIOAK

VALORES

Hiri Hezitzailearen jarduna ardaztuko duten balioak: Inklusioa, bizikidetza, hezkidetza, nortasun propioa, jasangarritasuna, sormena, jarrera kritikoa eta eraikitzailea, konfiantza eta elkarlana eta euskara.

Valores que centrarán la actuación de la Ciudad Educadora: Inclusión, convivencia, coeducación, identidad propia, sostenibilidad, creatividad, actitud crítica y constructiva, confianza y colaboración y euskera.



2025GOIO0016

Ordiziako Udala, kontzientea da, herri hezitzailea bilakatzeko erronkan hezkuntza komunitatea ezinbesteko aliatua dela. Arestian partekatutako helburu horiek lortzen laguntzeko, bertako haur eta gazteen heziketan lagungarri izan nahi du, herriko ikastetxeen heziketa jardueretan lagundu eta herri izaera hezitzailea duten ekintzak sustatuz.

Helburu hau gauzatu ahal izateko, Udalaren diru baliabideek ahalbidetzen duten neurrian dirulaguntzak emateko irizpideak eta horiek arautzen dituen oinarri hauek prestatu ditugu

El Ayuntamiento de Ordizia es consciente de que la comunidad educativa es una aliada imprescindible en el reto de convertirnos en un pueblo educativo. Por eso mismo, pretendemos conseguir los objetivos compartidos mencionados previamente, contribuyendo a la educación de los niños, niñas y jóvenes locales, colaborando en las actividades educativas de los centros escolares del municipio e impulsando acciones de carácter educativo popular.

Para llevar a cabo este objetivo hemos elaborado, en la medida que lo permitan los recursos económicos del Ayuntamiento, los criterios para la concesión de subvenciones y las presentes bases reguladoras de las mismas.

OINARRI ESPEZIFIKOAK

BASES ESPECÍFICAS

1.- Diru-laguntzaren xedearen definizioa

1.-Definición del objeto de la subvención

Oinarri hauen xedea da Ordiziako ikastetxeek eta beraien guraso elkarteek Herri Hezitzailearen filosofiarekin bat egiten duten curriculumaz/eskolaz kanpoko programak sustatu, eta zaintza eta lan-jarduera bateragarriak egiteko kontziliazio programak bidera ditzaten bultzatzeko dirulaguntzak ematea arautzea.


Es objeto de las presentes bases regular la concesión de subvenciones, para impulsar programas curriculares/extraescolares siempre acordes a los valores de Ordizia Herri Hezitzailea (Ciudad Educadora), por parte de los centros escolares y de las asociaciones de padres y madres de Ordizia, así como programas de conciliación del cuidado que sean compatibles con actividad laboral.

2.-Dirulaguntzen Plan Estrategikoan txertatuta

2.-Integración en el Plan Estratégico de Subvenciones

Dirulaguntza lerro hau Ordiziako Udalaren 2024-2026 aldirako Dirulaguntzen Plan Estrategikoan barneratua dago. Osoko Bilkurak onartu zuen Plana 2024ko otsailaren 29an egindako Osoko Bilkuran Ordiziako Udalaren, eta bere menpeko erakundeen Dirulaguntzen Plan Estrategikoa. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala 72 zk, 2024ko apirilaren 15ekoa)

Esta línea de subvenciones está incluida en el Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia 2024-2026, aprobado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión celebrada el 29 de febrero del 2024 (Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 72 de 15 de abril)



Ordiziako Udala

2025GOIO0016

3.-Onuradunak

Ordizian egoitza nagusia duten ikastetxeak, Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzen dutenak.

Hezkuntza arloko intereseko jarduerak egiten dituzten irabazi asmorik gabeko Ordiziako Ikasleen Guraso Elkarteak, beti ere, legearen arabera eratuak eta dagozkien erregistroetan inskribatuak daudenak, behar den IFZ dutenak eta beren jarduera, batik bat, Ordiziako udalerrian garatzen dutenak.

Diru-laguntzen banaketan hezkuntza komunitateak hartuko dira aintzat, ikastetxeak eta guraso elkarteak elkarrekin batuta alegia. Gauzak honela, guraso elkarteek diru-laguntza eskatzen dutenean, dagokien ikastetxe edo zentroetako gehieneko kopuruaren baitan sartuko dira, beti ere, lehentasuna ikastetxe edo zentroen eskaerek izango dutelarik.

4.- Dirulaguntzaren zenbatekoa eta aurrekontuan egozten den partida

Diru-laguntza hornitzeko erabiliko den aurrekontuko partida 1 481.02.326.30.0117 2025 HEZIKETA PROIEKTUAK-LAGUNTZAK (5252) izango da, 130.000,00€ dituenak, eta diru-laguntzaren gehieneko zenbatekoa ikastetxe bakoitzeko ikasle kopuruaren arabera mugatuko da.

5.-Onuradunek dirulaguntza lortzeko bete behar dituzten baldintzak eta horiek egiaztatzeko modua

Hauetako dira onuradunek bete beharreko **baldintza orokorrak**:

3.- Entidades beneficiarias

Centros con sede central en Ordizia que imparten Educación Infantil, Educación Primaria y Educación Secundaria Obligatoria.

Asociaciones de Padres y Madres de Alumnos y Alumnas de Ordizia, sin ánimo de lucro, que realicen actividades de interés educativo, legalmente constituidas e inscritas en los correspondientes registros, con el NIF necesario y que desarrollen su actividad principalmente en el municipio de Ordizia.


En el reparto de las subvenciones se tendrán en cuenta las comunidades educativas en su conjunto, es decir, la unión de los centros educativos y las asociaciones de padres y madres. Por consiguiente, cuando las Asociaciones de Padres y Madres soliciten la subvención, computarán dentro de la cantidad máxima que le corresponde a cada centro o escuela, teniendo siempre preferencia las solicitudes de los centros escolares.

4.- Importe de la subvención y partida presupuestaria

La partida presupuestaria que se destinará a la dotación de la subvención será la 1 481.02.326.30.0117 2025 PROYECTOS FORMATIVOS-AYUDAS (5252) por importe de 130.000,00 €, limitando el importe máximo de la subvención al número de alumnos y alumnas por centro educativo.

5.-Requisitos que deben reunir las personas/entidades beneficiarias para la obtención de la subvención y forma de acreditarlos

Los **requisitos Generales** a cumplir por las entidades beneficiarias son los siguientes:



Ordiziako Udala

2025GOIO0016

- Gizarte Segurantzarekiko, Ogasunarekiko eta zerga-betebeharrak egunean izatea. - *Hallarse al corriente de sus obligaciones tributarias con la Seguridad Social, Hacienda*
- Beteazte-aldian Ordiziako Udalarekin zerga-zorrik edo zehapenik ez izatea, non eta ez dauden geroratuta, zatikatuta edo beteazpena etenda - *No mantener deudas o sanciones tributarias en el periodo ejecutivo con el Ayuntamiento de Ordizia, salvo que se encuentren aplazadas, fraccionadas o cuya ejecución estuviese suspendida.*
- Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorraren 13. artikuluan adierazitako kasuren batean ez egotea. - *No encontrarse en cualquiera de los supuestos señalados en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones.*
- Ez izatea administrazio, lan edo zigor-zehapen irmorik dagokion zehapenean ezarritako aldian berdintasunerako eskubidea eta sexuagatiko diskriminaziorik eza urratzeagatik, ez izatea Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako eta Indarkeria Matxistarik gabeko Bizitzetarako Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuan ezarritako debekurik, ez eta araudi aplikagarrietan ezarritako bestelako kausarik ere - *No estar incurso en sanción administrativa, laboral o penal de forma firme por haber vulnerado el derecho a igualdad y a la no discriminación por razón de sexo durante el periodo impuesto en la correspondiente sanción, o no estar incurso/a en ninguna prohibición establecida en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres, o en cualquier otra causa estipulada en las normativas aplicables.*

Hauek dira onuradunek bete beharreko **baldintza espezifikak**:

Los **requisitos específicos** a cumplir por las personas/entidades beneficiarias son los siguientes:

- Dirulaguntzaren eskabidea aurkeztea erregistro elektronikoz bidez.

- *Presentar solicitud de subvención mediante registro electrónico.*

Pertsona Juridikoei dagokienez, diruz lagundutako jarduerak bat etorri behar du han xede edo helburu sozialekin.

En caso de personas jurídicas la actividad subvencionada debe tener cabida dentro del objeto o fines sociales de la misma

Elkarteei dagokienez, Elkarteen Erregistroan inskribatuta egon behar dute.


En caso de Asociaciones deben estar inscritas en el Registro de Asociaciones.

6.- Dirulaguntza emateko prozedura

6.- Procedimiento de la concesión

1.- Lehiaketa bidezko prozedura erabiliko da, deialdi eta hautaketa-prozedura bakarraren bidez.

1.- El procedimiento de la concesión será el de concurrencia competitiva, mediante convocatoria y procedimiento selectivo único.



Ordiziako Udala

2025GOIO0016

2.- Prozedura ofizioz hasiko da deialdi publiko bidez, organo eskudunak onartuta eta Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean (BDNS) eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuta.

2.- El procedimiento se iniciará de oficio mediante convocatoria pública, aprobada por el órgano competente y publicada en la Base Nacional de Subvenciones, así como en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3.- Prozedura honen bidez, dirulaguntzak emateko, oinarri hauetako 7 eta 15 artikuluan ezarritako irizpideen arabera ebaluatzen dira aurkeztutako eskaerak

3.- Mediante este procedimiento la concesión de subvenciones se realiza, evaluando las solicitudes presentadas de acuerdo con los criterios establecidos en los artículos 7 y 15 de las presentes bases.

Ordiziako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren II. tituluko 1. atalean ezarritakoaren arabera jardungo da.

Se procederá según lo establecido en la Sección 1ª del Título II de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia.

7.-Diruz lagundu daitezkeen gastuak


7.-Gastos subvencionables

Diruz lagundu ahal izango dira jarduera hauen ondoriozko gastuak, baldin eta 2024ko irailaren 1etik 2025eko abenduaren 15era bitartean garatutako programei badagozkie:

Serán subvencionables los gastos derivados de las siguientes actividades, siempre que se refieran a programas desarrollados en el periodo comprendido entre el 1 de septiembre de 2024 hasta el 15 de diciembre de 2025:

Herri Hezitzailearen filosofiarekin bat datozen hezkuntza curriculumaz/eskolaz kanpoko programak edo ekintzak lagunduko dira. Bereziki, haur, nerabe, gazte zein familien edo bizikidetza unitateengan eragingo dutenak, Ordizia herri inklusibo eta irisgarri bat lortzeko helburuarekin, herritar guztiak aintzat hartuko dituen eta herria aniztasunetik eraikiko duena. Jasangarritasunean eredu eta zaintza eta bizitza erdigunean jarrita, indarkeriarik gabeko, elkar zaintzen duen komunitatea indartzeko bidean, garapen intelektual, afektibo, artistiko eta harremanezkoa helburu duten eta Ordizia Herri Hezitzaileak ezarritako balioak (Inklusioa, bizikidetza, hezkidetza, nortasun propioa, jasangarritasuna, sormena, jarrera kritikoa eta eraikitzailea, konfiantza eta elkarlana eta euskara) sustatzen dituzten ekintzak.

Se apoyarán programas o actividades educativas curriculares/extraescolares que sean acordes con la filosofía de Herri Hezitzailea (Ciudad Educadora). En particular, aquellas que incidan en los niños, niñas, adolescentes, jóvenes, familias o unidades convivenciales, con el objetivo de conseguir un pueblo de Ordizia inclusivo y accesible, que tenga en cuenta al conjunto de la ciudadanía y que construya el pueblo desde la diversidad. Acciones que aspiren a ser modelo de sostenibilidad, y que pongan, en el centro los cuidados y la vida, que fomenten el desarrollo intelectual, afectivo, artístico y relacional de una comunidad libre de violencia que se cuida mutuamente, y que promuevan los valores establecidos por Ordizia Ciudad Educadora (inclusión,



Ordiziako Udala


2025GOIO0016

convivencia, coeducación, identidad propia, sostenibilidad, creatividad, actitud crítica y constructiva, confianza y colaboración y euskera).

Hala nolako ekintzak:

Acciones tales como:

- Euskararen normalizazioa bultzatzeko aurkeztutakoak.
- Eleaniztasuna bultzatzeko proiektuak.
- Ingurugiroarekiko sensibilizazioa eta zainketa bultzatzen dutenak.
- Genero ikuspegia lantzerantz zuzenduta daudenak.
- Kultura suspertzeko ekitaldiak: Kultur asteak, idazleen aurkezpenak...
- Jai herrikoien berreskuratzeko proiektuak (Gau Beltza, Ihauteriak...)
- Teknologia berrien sustapenarekin lotutakoak.
- Kultur-artekotasuna bultzatzen dutenak.
- Herri Hezitzaileen filosofiarekin bat egiten duten jakintza arlo espezifikoengatik inguruko talde lanak bultzatzea.
- Elkarbizitza zainkera zuzendutako programa eta jarduerak.
- Eskola baratza.
- Euskal curriculum-a lantzeko jarduerak, eta bereziki Ordiziako Herri Curriculum partekatua sortzerantz bideratuak.
- Ikasleentzat batzorde eta lan taldeak bultzatzera zuzendutako ekintzak.
- *Promoción de la normalización del euskera.*
- *Fomento de la pluralidad lingüística.*
- *Fomento de la sensibilización medioambiental y su protección.*
- *Dirigidas a trabajar la perspectiva de género.*
- *Eventos de promoción cultural: Semanas culturales, presentaciones de escritoras y escritores...*
- *Proyectos de recuperación de fiestas populares (Gau Beltza, carnavales...)*
- *Promoción de nuevas tecnologías.*
- *Fomento de la interculturalidad.*
- *Fomento del trabajo en equipo sobre ámbitos de conocimiento específicos relacionados con la filosofía de Ciudades Educadoras.*
- *Programas y actividades encaminados a preservar la convivencia.*
- *Huertas escolares.*
- *Actividades para trabajar el curriculum vasco y muy especialmente las encaminadas a la creación de un Curriculum Local de Ordizia.*
- *Actividades para el fomento de grupos de trabajo y comisiones de alumnas y*



Ordiziako Udala

2025GOIO0016

alumnos.

Era berean, Ordiziako hezkuntza zentroetan familien zaintza eta lan-jarduera bateragarria egiteko kontziliazio programak ere lagunduko dira.

Asimismo, también se subvencionarán programas de conciliación para compatibilizar el cuidado y la actividad laboral de las familias en los centros educativos de Ordizia.

Ondorengo gastuak lagunduko dira diruz:

Serán subvencionables los siguientes gastos:

- | | |
|--|--|
| • Jarduerak sortutako gastu materialak. | • <i>Gastos materiales generados por las actividades.</i> |
| • Jarduerak garatzeko beharrezkoak diren adituen gastuak. | • <i>Gastos de personas expertas necesarias para el desarrollo de las actividades.</i> |
| • Jarduerak garatzeko lokalak alokatzea. | • <i>Arrendamiento de locales para el desarrollo de las actividades.</i> |
| • Jarduerak garatzeko beharrezkoak diren hornidura-gastuak (ura, elektrizitatea, telefonoa...) | • <i>Gastos de suministro necesarios para el desarrollo de las actividades (agua, electricidad, teléfono...)</i> |
| • Jarduerak gauzatzeko beharrezkoak diren garbiketa-gastuak. | • <i>Gastos de limpieza necesarios para la ejecución de las actividades.</i> |


Gastuek dirulaguntza honen xedean jasota ez dauden jarduerak ere hartzen badituzte, diruz lagundu daitekeen jarduerari egotz dakioken gastuaren zenbatekoa zehaztu eta justifikatu beharko da.

En caso de que los gastos también abarquen actividades no contempladas en el objeto de la presente subvención, será necesario especificar y justificar el importe del gasto imputable a la actividad subvencionable.

Ondorengo gastuak ez dira diruz lagungarri izango.

No podrán ser objeto de subvención:

- | | |
|---|---|
| • Bankuko kontuetako interes zordunak. | • <i>Intereses deudores en cuentas bancarias.</i> |
| • Interes, errekaratu eta zehapen administratibo eta penalak. | • <i>Intereses, recargos y sanciones administrativas y penales.</i> |
| • Prozedura judizialek sortutako gastuak. | • <i>Gastos generados por procedimientos judiciales.</i> |
| • Zeharkako zergak, baldin eta berreskuratu edo konpentsatu | • <i>Impuestos indirectos, en caso de que se puedan recuperar o</i> |



Ordiziako Udala

2025GOIO0016

badaitezke.

compensar.

- Errentaren gaineko zerga pertsonalak.
- *Impuestos personales sobre la renta.*
- Jarduera garatzeko erabiltzen diren onuradunaren ondasun inbentariagarrien amortizazio- gastuak (salbu Dirulaguntzen Lege Orokorraren 31.6 artikuluko baldintzak betetzen badira)
- *Gastos de amortización de bienes inventariables del beneficiario, destinados al desarrollo de la actividad (salvo que se cumplan los requisitos dl artículo 31.6 de la Ley General de Subvenciones)*
- Hezkuntza arautuari lotutako gastuak.
- *Gastos relacionados con la educación reglada.*

8.- Bateragarritasuna edo bateraezintasuna helburu bererako beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabide batzuekin, edozein administrazioetatik edo erakunde publiko zein pribatutatik etorritakoekin, Europar Batasuneko naziokoak zein nazioartekoak izan.

8.- Compatibilidad o incompatibilidad con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos para la misma finalidad, procedentes de cualesquiera Administraciones o entes públicos o privados, nacionales de la Unión Europea o de organismos internacionales

Dirulaguntza hauek bateragarriak izango dira beste administrazio publiko edo erakunde pribatu batzuetatik helburu bererako jasotako beste edozein dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabiderekkin.

Estas subvenciones serán compatibles con cualquier otra subvención, ayuda, ingreso o recurso procedente de otras administraciones públicas, y/o entidades privadas, que para el mismo fin pudieran percibir las entidades beneficiarias.

Diru-laguntzaren zenbatekoa, bakarka hartuta edo beste dirulaguntza, laguntza, diru-sarrera edo baliabideekin batera hartuta, ez da, inola ere, diruz lagundutako jardueraren kostua baino handiagoa izango.

El importe de la subvención en ningún caso podrá ser de tal cuantía que, aisladamente o en concurrencia con otras subvenciones, ayudas, ingresos o recursos, supere el coste de la actividad subvencionada.

9.- Onuradunen betebeharrak eta publizitatearen, euskararen eta berdintasunaren arloan dituzten betebeharrak


9.- Obligaciones de las entidades beneficiarias, así como sus obligaciones en materia de publicidad, euskera e igualdad

- Dirulaguntza emateko oinarri diren jarduerak egitea eta/edo helburuak betetzea.- Oinarri hauetan eskatutako agiriak aurkeztea.

- Realizar las actividades y/o cumplir con los fines que fundamentan la concesión de la subvención.

- Ordiziako Udalari justifikatzea dirulaguntza

- Justificar ante el Ayuntamiento de Ordizia el cumplimiento de las condiciones,



Ordiziako Udala

2025GOIO0016

emateko kontuan hartu diren baldintzak, jarduerak eta helburuak bete direla.

actividades y objetivos tenidos en cuenta para la concesión de la subvención.

- Udalak egiten dituen egiaztapen-jardueren men egitea.

- Someterse a las actuaciones de comprobación que realice el Ayuntamiento.

- Ordiziako Udalari jakinaraztea diruz lagundutako jarduerarako eman zaion beste edozein dirulaguntza.

- Comunicar al Ayuntamiento de Ordizia cualquier otra subvención que le haya sido otorgada para la actividad que se subvenciona.

-Oinarri hauetan eskatutako agiriak aurkeztea.

- Presentar la documentación requerida en las presentes bases.

- Dokumentazioan, publizitatean, irudian edo materialetan, hizkera ez-sexista erabiliko da, irudi diskriminatzaileak edo genero-estereotipoak saihestuko dira, eta berdintasunaren, aniztasunaren eta inklusioaren balioak dituen irudia sustatuko da.

- La documentación, publicidad, imagen o materiales emplearán un uso no sexista del lenguaje, se evitará cualquier imagen discriminatoria o estereotipos de género, y se fomentará una imagen con valores de igualdad, diversidad e inclusión.

- Dirulaguntzak arautzen dituen araudiak eskatutakoak.

- Las exigidas por la normativa reguladora de subvenciones.

- Laguntza lortzeko jarduerak eta programak euskaraz burutu beharko dira, dagokion kasuetan itzulpenak burutu behar balira, gastu hauek lagungarriak izango liratekeelarik (hizlari erdaldunen kasuan salbuespenak onartu ahal izango dira).

- Las actividades y programas para los que se otorgue la ayuda deberán realizarse en euskera, pero si se utilizasen mecanismos de traducción, estos gastos también serían subvencionables (en el caso de ponentes castellanoparlantes se podrán admitir excepciones).

- Jarduera guztiek genero ikuspegia eta berdintasun irizpideak bete beharko dituzte.


- Todas las actividades deberán cumplir con criterios de igualdad y perspectiva de género.

Ezinbesteko baldintza izango da agiri, irudi edo material guztiek hizkuntzaren erabilera ez-sexista baliatzea, estereotipo sexistak edo emakumeen bereizkeria eragin ditzaketen irudi oro saihestea eta honako balio hauek sustatzea: Berdintasuna, presentzia orekatua, aniztasuna, erantzukidetasuna, eta genero-eginkizunen eta identitateen aniztasuna.

Será requisito imprescindible que en toda la documentación, publicidad, imagen o materiales se emplee un uso no sexista del lenguaje, evitar cualquier imagen discriminatoria de las mujeres o estereotipos sexistas y fomentar una imagen con valores de igualdad, presencia equilibrada, diversidad, corresponsabilidad, y pluralidad de roles e identidad de género.

Ez egitea emakumeen edo emakume-taldearen sexuagatiko diskriminazioa edo diskriminazio anizkoitzeko faktoreak eragiten dituzten

No realizar actividades que supongan discriminación por razón de sexo o factores de discriminación múltiple, de mujeres o



Ordiziako Udala

2025GOIO0016

jarduerak, diskriminazio -egoerak eragin ditzaketen beste faktore batzuk gertatzen direnean, hala nola arraza, kolorea, jatorri etnikoa, hizkuntza, erlijioa, politikari edo bestelako gaiei buruzko iritzia, gutxiengo nazional bateko kide izatea, ondarea, jaioterria, desgaitasuna, adina, sexu-joera, genero-identitatea, genero-adierazpena, migrazio-prozesua, errefuxiatu-estatusa, kultura, landa -jatorria, gizarte bazterketako egoera, seropositibitate-egoera, guraso bakarreko familia, familia-konfigurazioa edo beste edozein baldintza edo inguruabar pertsonal, sozial edo administratiboa.

grupos de mujeres, cuando concurren otros factores que puedan dar lugar a situaciones de discriminación, tales como la raza, el color, el origen étnico, la lengua, la religión, la opción política o de otra índole, la pertenencia a una minoría nacional, el patrimonio, el lugar de nacimiento, la discapacidad, la edad, la orientación sexual, la identidad de género, la expresión de género, el proceso migratorio, el estatus de refugiado, la cultura, el origen rural, la situación de exclusión social, la situación de seropositividad, la familia monoparental, la configuración familiar o cualquier otra condición o circunstancia personal, social o administrativa.

10.- Deialdia argitaratzea eta eskabideak aurkezteko modua eta epea

10.- Publicación de la convocatoria y forma y plazo de presentación de solicitudes

Oinarri hauek eta deialdia Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratuko dira.

Las presentes bases y la convocatoria serán publicadas en la Base de Datos Nacional de subvenciones, así como en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Eskabideak aurkezteko epea 2025eko abenduaren 15ean amaituko da.


El plazo de presentación de solicitudes finalizará el 15 de diciembre de 2025.

Eskabideak bide telematikoz aurkeztu beharko dira, Ordiziako Udalaren erregistro elektronikoaren bidez (www.ordizia.eus) eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikuluan aurreikusitako edozein bide erabiliz ere.

Las solicitudes se deberán presentar por vía telemática a través del registro electrónico del Ayuntamiento de Ordizia (www.ordizia.eus) así como por cualquiera de los medios previstos en el artículo 16.4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de procedimiento administrativo común de las administraciones públicas.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 14.2 eta 14.3 artikuluetan ezartzen den moduan, Administrazioarekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta dauden pertsonak edo erakundeak (pertsona juridikoak, izaera juridikorik ez duten entitateak...) telematikoki aurkeztu beharko dituzte eskabideak.

Las personas/entidades obligadas a relacionarse por medios electrónicos con la administración recogidas en los artículos 14.2 y 14.3 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, de procedimiento administrativo común de las administraciones públicas (personas jurídicas, entidades sin personalidad jurídica...) deberán presentar sus solicitudes de forma telemática.



Ordiziako Udala

2025GOIO0016

11.- Eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentuak eta informazioak

11.- Documentos e informaciones que deben acompañarse a la petición

1- Eskabide-orri normalizatua (Udalaren webgunean eskuragarri). Entitate eskatzailea ordezkatzeko legezko gaitasuna duen pertsonak sinaturik aurkeztu beharko da.

1- *Impreso de solicitud normalizado (disponible en la página web del Ayuntamiento). Dicha solicitud deberá presentarse firmada por la persona que tenga la capacidad legal para representar a la entidad solicitante*

2- Erantzukizunpeko adierazpena, indarrean den araudiaren arabera dirulaguntzak lortzeko debekurik ez duela adierazten duena.

2- *Declaración responsable de no estar incurso/a en ninguna de las causas de prohibición para la obtención de subvenciones según lo estipulado por la norma vigente*

3- Erantzukizunpeko adierazpena, beste, sail, instituzio, erakunde eta abarretan egindako dirulagunza-eskaerak edo, hala badagokio, jarduera edo helburu bererako eman zaizkionak jasotzen dituen.

3- *Declaración responsable en la que se hagan constar las solicitudes de subvención formuladas ante otras áreas, instituciones, organismos, etc..., o en su caso, de las que estuvieran otorgadas para la misma actividad o finalidad.*

4- Ikastetxean 2024-2025 ikasturteetan matrikulatutako ikasle kopuruaren gaineko erantzukizunpeko aitortpena.

4- *Declaración responsable sobre el número de estudiantes que se matricularon en el curso 2024-2025 en el centro.*

5- Azalpen-memoria:

5- *Memoria expositiva:*

7. eta 15. puntuan adierazten diren balorazio-irizpideak bete beharko dira.


Se deberá cumplir con los criterios de valoración establecidos en los puntos 7 y 15.

Memoria horrek, gutxienez, eduki hau izan beharko du: (gehienez 5 orrialde DINA4 programa edo jarduera bakoitzeko)

La citada memoria deberá tener, como mínimo, el siguiente contenido: (como máximo 15 hojas DINA 4 por cada programa de actividades)

- Diruz-laguntzeko aurkezten den programa bakoitzaren deskribapena (helburuak, hartzaile kopurua, noiz eta nola burutu den).
- Proposatzen diren jarduerak Ordizia Herri Hezitzailearen baloreekin

- *Descripción de cada programa que se presenta para ser subvencionada (objetivos, nº de participantes, cuándo y dónde se ha realizado).*
- *Justificación de la concordancia de las actividades propuestas con los valores de Ordizia Herri Hezitzailea*



Ordiziako Udala

2025GOIO0016

lerrokatzen direla justifikatzea.

- Diruz-lagunduko den programa betetzeko erabili diren: metodologia, baliabide pertsonal eta teknikoak
- Genero-ikuspegiaren eta ikuspegi interseksionalaren tratamendua nola jorratu den proiektuan.
- Jarduerak/programak izan dituen gastu eta diru-sarreraren aurreikuspena .

(Ciudad Educadora).

- Metodología, medios personales y técnicos para la ejecución del programa objeto de subvención.
- Cómo se abordará el tratamiento de la perspectiva de género e interseccional en el proyecto.
- Previsión de gastos e ingresos de las actividades/programas.

12.- Dokumentazio elkarreragingarria eta egiaztagarria

Urriaren 1eko 39/2015 Legeak, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearenak, 28. artikuluan aitortzen du herritarrek eskubidea dutela dagoeneko administrazio jardulearen esku dauden dokumentuak edo beste edozein administrazio egindakoak ez aurkezteko, halako moldean non administrazio jarduleak dokumentu horiek kontsultatu edo eskuratu ahal izango dituen, salbu eta interesdunak horren aurka egiten badu. Administrazio publikoek elektronikoki eskuratu behar dituzte dokumentuak, beren sare korporatiboen bidez edo datu-bitartekaritzarako plataformei edo horretarako prestatutako beste sistema batzuei kontsulta eginez.

Ordiziako Udala Euskadiko administrazioen elkarreragingarritasun- eta segurtasun-nodoaren parte da (NISAE). Plataforma hori komuna da euskal sektore publikoko administrazio eta erakunde guztientzat, haien artean eta gainerako administrazioekin datu elektronikoen trukea ezartzeko nodo autonomiko gisa.

Deialdi honetan, honako betekizun hauek egiaztatuko dira plataforma korporatiboen, bitartekotza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez:

- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak


12.- Documentación interoperable y verificable

La Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones, en el artículo 28 reconoce el derecho de la ciudadanía a no aportar los documentos que ya se encuentren en poder de la Administración actuante o hayan sido elaborados por cualquier otra Administración, de tal forma que la administración actuante podrá consultar o recabar dichos documentos, salvo que la persona interesada se opusiera a ello. Las Administraciones Públicas deben recabar los documentos electrónicamente a través de sus redes corporativas o mediante consulta a las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas habilitados para ello.

El Ayuntamiento de Ordizia forma parte del nodo de interoperabilidad y seguridad de las administraciones de Euskadi NISAE, plataforma común para todas las administraciones y entidades del sector público vasco como nodo autonómico para implementar el intercambio de datos electrónicos entre ellas y con el resto de las administraciones.

Los requisitos que se verificarán en esta convocatoria a través de plataformas corporativas, de intermediación (NISAE) o de acceso público serán los siguientes:

- Certificado de estar al corriente de los pagos con la Hacienda de la Diputación



Ordiziako Udala

2025GOIO0016

ordainduta dituela egiaztatzen duen agiria.

Foral de Gipuzkoa y la Seguridad Social.

- Ordiziako Udalarekin dituen zorrak ordainduta izatea.

- *Estar al corriente en el pago de sus deudas con el Ayuntamiento de Ordizia.*

Arazo teknikoak direla-eta kontsulta datu-bitartekaritzarako plataformen bidez edo horretarako prestatutako beste sistema elektronikoen bidez egin ezin denean, salbuespenez, dokumentazioa aurkezteko eskatu ahal izango zaio eskatzaileari.

Cuando por problemas técnicos no sea posible realizar la consulta a través de las plataformas de intermediación de datos u otros sistemas electrónicos habilitados al efecto, excepcionalmente se podrá requerir a la persona solicitante la aportación de documentación.

13.- Agiriak Kontsultatzearen aurka egin bada:

13.- En caso de oposición a la consulta de documentos:

Egoera horretan honakoa aurkeztu beharko da erregistro elektronikotik:

En este caso se deberá aportar mediante el registro electrónico:

- 1.- Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasunari eta Gizarte Segurantzari ordaindu beharrekoak ordainduta izatea egiaztatzen duen agiria
- 2.- Ordiziako Udalari ordaindu beharrekoak ordainduta izatea egiaztatzen duen agiria
- 3.- Kontu korrontearen titulartasunaren ziurtagiria

- 1.- *Certificado de estar al corriente de sus obligaciones con la Hacienda y Seguridad Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa*
- 2.- *Justificante de estar al corriente de pago al Ayuntamiento de Ordizia*
- 3.- *Certificado de titularidad de la cuenta corriente*

14.- Zuzenketa eta dokumentazio osagarria

14.-Subsanación y documentación complementaria

Eskabideak ez baditu betetzen deialdian ezarritako baldintzak, interesdunari eskatuko zaio 10 eguneko gehieneko epe luzaezinean zuzen dezala, eta adieraziko zaio ezen, hala egin ezean, eskaeran atzera egin duela ulertuko dela, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 68. artikulua araberako ebazpena eman ondoren.

Si la solicitud no reúne los requisitos establecidos en la convocatoria, se requerirá al interesado para que la subsane en el plazo máximo e improrrogable de 10 días, indicándole que si no lo hiciese se le tendrá por desistido de su solicitud, previa resolución que deberá ser dictada en los términos previstos en el artículo 68 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común.

15.- Dirulaguntza emateko irizpide objektiboak eta horien haztapena

15.- Criterios objetivos de otorgamiento de la subvención y ponderación de los mismos

Diru-laguntza hornitzeko erabiliko den aurrekontuko partida 1 481.02.326.30.0117 2025 HEZIKETA PROIEKTUAK-LAGUNTZAK (5252) izango da, 130.000,00€ dituen.

La partida presupuestaria que se destinará a la dotación de la subvención será la 1 481.02.326.30.0117 2025 PROYECTOS FORMACIÓN-AYUDAS (5252) por importe de 130.000,00 €.

Gehieneko dirulaguntza ikastetxeak duen ikasle kopuruaren arabera ezarriko da. Zenbateko hori kalkulatzeko, Udalak kontzeptu honetarako ezarritako diru partidaren kopurua hartu eta Haur Hezkuntza, Lehen Hezkuntza, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza, eskaintzen duten ikastetxeetan guztira dauden ikasle kopuruarengatik zatituko da. Horrela, ikastetxe bakoitzak, dituen ikasleen arabera, gehienez jaso dezakeen dirulaguntza finkatuko da. Gehiengo kopuru horretara heltzeko, ikastetxeak ez ezik, bertako guraso elkarteak burututako ekintzak ere aintzat hartuko dira.

2025eko deialdian 2024-2025 ikasturteko ikasle kopuruak hartuko dira kontutan, eta kopuru zehatzak ikastetxe bakoitzak eskaeran ziurtatu beharko ditu.

Aurkeztutako programa edo ekintzen aurrekontuak irizpide hauen arabera zenbatu ahal izango dira diru-laguntza lortzeko:

1.- Herri osora zabaldutako ekimenak %100

2.- Komunitate barnera zabaldutako ekimenak %75

3.- Ikastetxe barnera zabaldutako ekimenak %50

4.- Euskararen sustapenera bideratutako ekimenak %100

5.- Zaintzara bideratutako ekimenak %100

La subvención máxima se establecerá en función del número de alumnos y alumnas del centro. Esta cantidad se calculará dividiendo la partida consignada por el Ayuntamiento para este concepto entre el número total de alumnos y alumnas de los centros que imparten Educación Infantil, Educación Primaria, Educación Secundaria Obligatoria. Así, se establecerá la subvención máxima que puede recibir cada centro en función del alumnado que tenga. Para llegar a esta subvención máxima se tendrán en cuenta, además del centro, las actividades realizadas por la asociación de padres y madres de la misma.

En la convocatoria de 2025 se tendrán en cuenta los alumnos y alumnas del curso 2024-2025, debiendo certificarse las cifras concretas en la solicitud por cada centro.

Los presupuestos de los programas o acciones presentados podrán ser computados para la obtención de la subvención en base a los siguientes criterios:


1.- Iniciativas abiertas a todo el pueblo 100%

2.- Iniciativas abiertas dentro de cada comunidad 75%

3.- Iniciativas abiertas dentro de cada centro 50%

4.- Iniciativas orientadas a la promoción del euskera 100%

5.- Iniciativas orientadas al cuidado 100%



Ordiziako Udala

2025GOIO0016

Aurkeztutako proiektu eta jarduerak oinarri hauen 7. atalean ezarritako arloen ingurukoak izan beharko dira, Ordizia Herri Hezitzailearen misio, bisio eta baloreei lotuak, eta bereziki baloratuko da herri mailako ikuspegia txertatzea, ahalik eta jarduera irekienak proposatzea eta Ordiziako Herri Curriculum osatzeko, heziketa proiektu partekatu bat eraikitze bidean, herriari eskuragarri utziko zaion material didaktikoa sortzea:

Los proyectos y actividades presentados deberán girar en torno a las áreas establecidas en el punto 7 de las presentes bases, siempre vinculadas a la misión, visión y valores de Ordizia Herri Hezitzailea, valorándose especialmente la incorporación de la perspectiva local del conjunto del municipio, la propuesta de actividades lo más abiertas posibles y la elaboración de material didáctico que se ponga a disposición del municipio, para la creación de un proyecto educativo compartida y local que dé lugar a un Curriculum Local de Ordizia.

Ikasle kopuruaren araberako gehieneko diru-laguntza lortzen denean, aurrekontuaren handitzeak ez du diru-laguntza handituko, baina oinarri hauetako irizpideekin bat egiten duten ekintza guztien gastuak izango dira baliagarriak diru-laguntza zuritzeko.

Una vez obtenida la subvención máxima en función del número de alumnos y alumnas, el incremento del presupuesto no supondrá incremento de la subvención concedida, si bien los gastos de todas las actividades que se realicen de acuerdo con los criterios de las presentes bases servirán para justificar la subvención.

16.- Laguntzak emateko prozedura antolatze, bideratze eta ebazteko eskumena duten organoak

16.- Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión

Ordiziako Udaleko Idazkaritzak bideratuko du prozedura.

La instrucción del procedimiento se llevará a cabo por la Secretaría del Ayuntamiento de Ordizia.

Alkatetza da dirulaguntza-prozedura antolatze eta ebazteko organo eskuduna, egin ditzakeen eskuordetzei kalterik egin gabe.


El órgano competente para la ordenación y resolución del procedimiento de concesión es la Alcaldía, sin perjuicio de las delegaciones que pueda efectuar.

17.- Balorazio-batzordearen osaera

17.- Composición de la comisión de valoración

- Herriarren Batzordea osatzen duten udal teknikariak.
- Heziketa-hezkuntza arloaren ardura duen zinegotzigoaren titularra, lehendakaria izango dena.
- Ordiziako Udaleko Administrazio Orokorreko teknikaria, balorazio

- *Personal técnico que forma parte de la Comisión de Ciudadanía.*
- *Titular de la Concejalía responsable del área de educación, que será el/la presidente.*
- *Personal técnico de Administración General del Ayuntamiento de Ordizia,*



Ordiziako Udala

2025GOIO0016

batzordearen idazkaria izango dena.

que será el/la secretario/a de la comisión de valoración.

18.-Ebazteko eta jakinarazteko epea

Behin betiko ebazpena emateko eta jakinarazteko gehieneko epea hilabete batekoa da, dagokion deialdia argitaratzen denetik aurrera.

18.- Plazo de resolución y notificación

El plazo máximo para resolver y notificar la resolución definitiva es de un mes a partir de la publicación de la correspondiente convocatoria.

19.- Diru-laguntzen ordainketa

2024ko irailaren 1etik 2025eko abenduaren 15era bitarteko aldiari dagokion dirulaguntzaren % 100 ordainduko da, eskaera aurkeztzen denean, justifikazioa behar bezala egin dela egiaztatu ondoren.

19.- Abono de las subvenciones

Se abonará el 100% de la subvención relativa al periodo comprendido entre el 1 de septiembre de 2024 y el 15 de diciembre de 2025 con la presentación de la solicitud, previa comprobación de que la justificación se ha realizado de forma correcta.

20.- Justifikatzeko modua, aurkeztu beharreko dokumentazioa eta memorian sartu beharreko alderdiak.

Dirulaguntzaren eskabidearekin batera aurkeztuko da, interesdunak aurkeztu beharreko dokumentazioa arautzen duen apartatuan ezarritakoaren arabera.

20.- Forma de justificación, documentación a presentar y extremos a incluir en la memoria.

Se presentará junto con la solicitud de subvención, de acuerdo con lo establecido en el apartado que regula la documentación a aportar por la persona interesada.

21.- Dirua itzultzeko araubidea

Ordiziako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren VI. tituluaren ezarritakoa aplikatuko da, baita honako hauetan xedatutakoa ere: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2002 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua eta gainerako araudi aplikagarria.

21.- Régimen de reintegro


Será de aplicación lo establecido en el Título VI de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia, así como lo dispuesto en la Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Reglamento de la Ley General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2002, de 21 de julio y el resto de normativa aplicable.

22.- Arau-hausteen eta zehapenen araubidea

Ordiziako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorraren VIII. tituluaren ezarritakoa aplikatuko da, baita honako hauetan

22.- Régimen de infracciones y sanciones

Será de aplicación lo establecido en el Título VIII de la Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia, así como lo dispuesto en la Ley



Ordiziako Udala

2025GOIO0016

xedatutakoa ere: Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorra, uztailaren 21eko 887/2002 Errege Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua eta gainerako araudi aplikagarria.

38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones, el Reglamento de la Ley General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2002, de 21 de julio y el resto de normativa aplicable.

23-Aplikatu beharreko araudia

- 38/2003 Lege Orokorra, azaroaren 17koa, Dirulaguntzei buruzkoa.
- Dirulaguntzei buruzko Lege Orokorraren Erregelamendua, uztailaren 21eko 887/2002 Errege Dekretuaren bidez onartua.
- 1/2023 Legegintzako Dekretua, martxoaren 16koa, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako indarkeria Matxistarik Gabeko Bizitzetarako Legearen testuategia onartzen duena.
- 179/2019 Dekretua, azaroaren 19koa, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
- Ordiziako Udalaren Dirulaguntzen Ordenantza Orokorra.
- Ordiziako Udalaren Dirulaguntzen Plan Estrategikoa 2024-2026.

23-Normativa aplicable

- Ley 38/2003, de 17 de noviembre, General de Subvenciones.
- Reglamento de la Ley General de Subvenciones, aprobado por Real Decreto 887/2002, de 21 de julio.
- Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres.
- Decreto 179/2019, de 19 de noviembre, sobre normalización del uso institucional y administrativo de las lenguas oficiales en las instituciones locales de Euskadi.
- Ordenanza General de Subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia.
- Plan Estratégico de Subvenciones del Ayuntamiento de Ordizia 2024-2026.

Sinatzailea Firmante	Administrazio Orokorreko Administrazioa Administrazio Orokorreko Administrazioa
	Dokumentu hau elektronikoki sinatu da, honen sinesgarritasuna ziurtatzeko jo interneteko orrialde honetara: / Este documento se ha firmado electrónicamente. Para verificar la veracidad de este documento ir a la página de Internet: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus/PortalV/r/0/76/AAAASAAXM.uEu3